

## **Protestanteak eta tolerantzia**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-08-17: 2.

Ezaguna da Lapurdiko Briskusen 1506an jaio zen Joannes Leizarraga apezak itzuli zuela lehen aldiz euskarara Bibliako Itun edo Testamentu Berria, eta ez katoliko gisa. Nafarroako Joanna Erregina protestanteak eragin eta 1571an argitaratu bait zuen. Gauzak asko aldatu dira harrez gero. Gure arteko istilu askoren ondoren gaur euskal Biblia lanetan lehen aldiz ari den Eliz Arteko Batzarrak euskalduna den Pastor ebangeliko bat du kide: irundarra bera, teologian eta filosofian ikasia den Juan Maria Olaizola Iguñiz jauna (1921). Bada honek idatzia eta Iruñeko Pamiela argitaletxeak oso dotore argitara berria du bere "Historia del Protestantismo en el Pais Vasco" (Nafarroako Erresuma bere historiaren bidagurutzean), Jose Angel Irigarayren sarrera argigarri batekin. Hemen aipagarriak dira: 1. Lehen aldiz Artzain protestante den euskaldun batek garrantzi handia duen gure historiaren zati bat bere aldetik kontatzen duela. 2. Itun Berri hau kontu handiz eta ikuspegi zabalarekin ofizialtasun osoa duen itzulpena egin izan dela, itzultzaile zuhur eta Teologian eta Filosofian jakintsua den Dionisio Amundarainen zuzendaritzapean. Honek esan nahi du, Euskal Herriak merezi duen zabaltasuna eta tolerantzia erakusten duen zutabeetako bat jartzea lortu dela. Irten berria den Hizkuntza Politikarako Idazkaritzako "Euskararen berripapera-k" (abuztua, 1993) dion bezala, Durangoko azokan erakutsi nahi omen lukete egileek. Eta beste euskaldun askok ere bai.